

---

## DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN EGINKIZUNAK

Odietako Udalak Datuak Babesteko Ordezkaria izendatu du, EBko 2016/679 Erregelamenduaren 37.1. a) artikulua ezarritakoarekin bat (DBEO)

Hona Datuak Babesteko Ordezkariek egin beharreko eginkizunak, DBEOan bildutakoarekin bat:

- Zer betebehar dituzten azaltzea eta aholkuak ematea tratamenduaren arduradunari eta enplegatuei, DBEOrekin bat, bai eta EBn edo Estatu kideetan datuak babesteko indarrean dauden bestelako xedapenei jarraiki ere.
- Gainbegiratzea bete dadila bai DBEOan xedatutakoa, bai EBn edo Estatu kideetan datuak babesteko indarrean dauden bestelako xedapenak, bai datu pertsonalak babesteko arduradunaren politikak, barne dela datuak tratatzeko lanetan ari diren langileen arduren banaketa, kontzientziazioa eta prestakuntza; halaber, kasuan kasuko auditoriez arduratuko da.
- Aholkularitza eskaintzea (halakorik eskatzen bazaio) datuak babesteari buruzko eraginaren ebaluazioaz, eta haren aplikazioa gainbegiratzea, DBEOko 35. artikuluaarekin bat.
- Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin lankidetzan aritzea. Kontrol arloko agintariekin harremana izatea tratamenduari dagozkion gaietan, barne dela DBEOren 36. artikulua aipaturiko alde aurreko kontsulta, eta kasua bada, beste edozein konturen gaineko kontsultak egitea.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen 36. artikulua arabera, Datuak Babesteko ordezkariek beste eginkizun batzuk ere baditu:

- Tratamenduaren arduradunaren edo arduradunaren solaskide gisa jardungo du Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eta datuak babesteko agintaritzaren autonomikoen aurrean. Ordezkariek lege organikoaren xedarekin zerikusia duten prozedurak ikuskatu ahal izanen ditu, eta gomendioak eman ahal izanen ditu bere eskumenen esparruan.
- Datuak babesteko ordezkariek ikusten badu datuen babesaren arloan urraketa garrantzitsuren bat gertatu dela, dokumentatu egingen du, eta berehala jakinaraziko die tratamenduaren arduradunaren administrazio- eta zuzendaritza-organoei.
- Tratamenduaren arduradunak datuak babesteko ordezkariei bat izendatu duenean, ukituak haien aurkako erreklamazioa aurkeztu aurretik Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean edo, hala badagokio, datuak babesteko agintaritzaren autonomikoen aurrean, erreklamazioa zer entitateren aurka egin duen, entitate horretako datuak babesteko ordezkarieganara jo ahal izanen du.
- Ukituak erreklamazio bat aurkeztu badu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo, hala badagokio, datuak babesteko agintaritzaren autonomikoen aurrean, haiek datuak babesteko ordezkariei bidaltzen ahalko diote erreklamazioa, hark hilabeteko epean erantzun dezan.

---

Datuak babesteko ordezkariak behar bezalako arreta jarriko du tratamendu lanei loturiko arriskueta, bere eginkizunak egiterakoan, kontuan harturik tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta xedeak.

Datuak babesteko ordezkariak ez du inolako jarraibiderik jaso behar bere eginkizunei buruz.

Interesdunek datuak babesteko ordezkariarengana jo dezakete, bai beren datu pertsonalei dagozkien kontu orotan, bai beren eskubideak erabiltzeari dagozkionetan, DBEOren babesean [dpd@odieta.es](mailto:dpd@odieta.es)

Datuak babesteko ordezkariak bere eginkizunei buruzko sekretua edo konfidentzialtasuna mantendu beharko du.